

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2015ko uztailak 16ko bileraren ondorio nagusien sintesia

- **Batzordearen funtzionamendua:** Erabaki da bilerak hileko hirugarren ostegunean egitea, 12:30etik 14:30era.
- **1. seihilekoari dagokion balantze ekonomikoa:** Sarrerak eta gastuak aurreikusitakoak izan dira.
- **Hondakinak biltzeko kontratuak multzokatzea: Kudeaketa-aginduen hitzarmenak eta bestelako Hitzarmenak osoko bilkuran onartzea:** Oniritzia eman zaio egutegiari. Tamaina handiko hondakinei buruzko argibideak uztailaren 24a baino lehen jakinarazi behar dira. Jarraian, Ebazpen proposamena eta Kudeaketa-agindurako hitzarmena bidaliko dira.
- **Bilketa organikoaren ezarpenaren bigarren kanpaina:** BFaren diru-laguntzaren eta egindako eta egiteko dauden erosketa eta kontratazioen berri eman da. Herritarrei zuzendutako informazio kanpaina urrian hasiko da.
- **Etxeko landare-olio erabilia biltzeko lehiaketa:** Pleguak onartu dira, eta horiek argitaratzea erabaki da.
- **Hondakinak zuzen banatzeko kontzientziazio kanpaina:** Kanpaina honetarako aurreikusitako euskarriak honakoak dira: totem finkoetarako biniloak, leku publikoetan eta atarietan jartzeko kartelak, eta webguneetarako eta Facebookerako bannerrak. Aurrekontua 4.481,91 eurokoa da, BEZ barne.
- **Lankidetz hitzarmena URArekin:** Udal mugarteetan, jabari publiko hidraulikoaren ertzetan eta ibilguetan elkarrekin esku hartzeko asmoz, URA-Uraren Euskal Agentziaren eta Udalen arteko lankidetz hitzarmenaren testua aurkeztu da.
- **Ekintzak energiaren arloan. Lankidetz hitzarmenerako proposamenak, EEArekin:** Erabaki da EEAre gonbit egitea hurrengo Batzordean parte hartzeko, planteamenduen eta irismenaren berri zehatzak izateko.
- **Hondakinak garbitzeko ekintzak, ibaiertz eta ubideetan:** Udalek proposatuko dizkiete Eskualde Batzordeari ekintzen kokapenak eta tipologia.
- **Informazioa:** 1. 2014ko Memoriako akatsen zuzenketa; 2. Lankidetz hitzarmenak Galdakao eta Basauriko Udalekin; 3. Hurrengo prentsa-oharrak.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Irailak 17an, osteguna, 12:30etatik 14:30etara.